ERAKUSLEIHOA

LITERATURA

'Elur bustia'

Pello Lizarralde. Erein. 128 or. 15 euro.

Etxearen inguruko gogoeta

Krisi ekonomikoak eraginda, bere jaioterrira bueltatu nahi duen Ramiroren istorioa kontatazen du Pello Lizarraldek bere lan berrian. Jaioterria xede, etxearen gaineko gogoeta egiten du idazleak lan honetan. Porrotean erori den gizonaren azalean jarri da horretarako, "asmo handietarako eta kalkuluetarako ez astirik ez biderik" duenaren azalean, biharamuna, datorrenari eustea kezka eta xede bakar duen horretan. 'Elur bustia' Lizarralderen seigarren nobela da; honen aurretik 'Orbanak' kaleratu zuen, 2012an. 2002an, Euskadi Literatura Saria irabazi zuen 'Larrepetit' nobelarekin.

LITERATURA

'Erleak, satorrak, beleak'

Gaizka Sarasola; ilus.: Iraitz Inziarte. Edo! 100 or. 14 euro.



Teatroa, literaturara ekarria

Gaizka Sarasolak idatzitako hiru antzerkitestu batzen dira lan honetan: 'Urak ttiki dire', 'Lur azpikoak' eta 'Talaka'. Bere poetikoan zorrotza da Sarasolaren teatroa, eta bere zorrotzean mingarria, ezerosoa bezain erreala delako kontatzen duena. Inguruan duen errealitatea gordin hartu du egileak, eta bufoiaren arimari fidel, itsusia edertu du, antzerki bilakatuz. Liburu ezohikoa da honakoa euskal literaturan: teatro testugintzaren tradizio moderno eta garaikide ugariren aztarnak suma daitezke bertan eta, batez ere, gaurko jendarteak erantzun nahi lituzkeen galderak taularatzen ditu egileak.

ZALDI EROA